

Kazetari, afizioz eta ofizioz

[Egile ezezaguna]

Berria, 200-10-05: V.

Venezuelarrei venezueleraz eta euskaldunoi euskaraz: Ugalde Venezuelan oso kazetari ezagun izatera iritsi zen; gurean, azken hiru hamarkadetako kazetaritzan eragile nabarmena izan da

Gazte-gaztetatik idazten eta irakurtzen gogoratu izan dute ingurukoek, baita gerra hasi aurretik ere. Are ondoren, horixe zuen bokazio eta. Idazten kazetaritzan eta literaturan aritu zen. Baina lehen-lehenik, kazetaritzarako izan zuen joera, eta hori izan zuen afizio eta ofizio urte askoan. Berak aitortua da ipuinera saltoa erreportaiak zubi gisa erabiliz eman zuena. Bere burua beti izan du kazetaritzat, idazletzat bainoago: "Kazetaritza zen nire betiko sena".

Kazetari Venezuelan egin zen. 1947an Caracasera iritsi, eta lehen lana *La Esfera* egunkariko zuzendariarengana joatea izan zuen. Kazetaria zela esan baina agiririk ez hori frogatzeko. Venezuela inoiz ezagutu ez zuen askatasunaren topaleku izan zen: zernahi esan eta idazteko eskubidea. Han ezagutu zuen sorterrian ukatua zuen adierazpen askatasuna: "Askatasuna edozein hizkuntzatan ederra dela sumatu nuen".

Francisco Villanueva Paquito *Elite* aldizkariko zuzendari izendatu berria Euskal Etxean ezagutu zuenean, Ugalderi kazetaritzatik bizimodua izateko lehen aukera sortu zitzaion. Berarekin nahi zuela esan zion. Ugaldek baietz, nahiz eta lanbide berriak aurrekoaren soldataren erdia baino gutxiago eskaini. Hortxe hasi zuen bere kazetari ibilbide luzea. Lehen urteetan denetarik egin zuen: idatzi, argazkiak atera, maketatu... Gaiak, berriz, denetarik. Horixe izan zuen kazetaritza eskola.

Euskal-venezuelarra

Venezuela eta venezuelarrendako ari zela idazten konturatzeak berebiziko garrantzia du Ugalderengan. Ez du erbesteratu bat izan nahi. Horrek konpromiso bat hartzea eraman zuen: venezueleraz idatzi beharko zuen, irakurleengana iritsiko bazen. Bere kasa hasi zen ikasten, idazle "euskal-venezuelarra" izateko: "Erroak euskaldunak, teknika venezuelarra eta bokabulario espainol-venezuelarra". Gaietan usu erabiliko du immigrantea. Idazkeran, bertako herri xehearen hizkera bereganatuko du. Idazle venezuelarren lanak izan zituen maisu. Hortik aurrera idazteak erakutsi zion idazten.

1950ean hartu zuen *Elite*-ko zuzendaritza. Aurreko urtean estatu kolpea eman zuten militarretako bat, Delgado Chalbaud, kolpisten artean demokratikoena hilik agertu zela eta jarraipen berezia egin zion Ugaldek gertakari hari, eta *Elite*-n tirada bereziak egin ziren erreportaia horiek zirela eta. Ezagun egin zuen lan horrek Venezuela osoan. Horren

ondorioz, *El Nacional* egunkari prestigiotsuan hasi zen kolaboratzen. Bertan argitaratu zuen, besteak beste, *Cuando los peces mueren de sed* liburuan jaso zuen erreportaia sorta. Venezuelako biztanle eta eskualdeen kronika gizatiarra da liburua, kazetaritzaren maisulana, kazetaritza fakultateetako testu liburutzat erabilia. *Elite*-n sei urte egin eta gero, Creole Petroleum Corporation enpresa erraldoiaren babesean *Nosotros* aldizkaria zuzentzen hasi zen, 32.000 langileren artean banatzen zena. Gero, *El farol* kultur aldizkari ospetsua zuzentzeko lanak ere hartu zituen; hura ere Estatu Batuetako petrolio enpresaren babesean argitaratzen zen. Hamabost urte egin zituen horretan. Epe horretan erreportaia eta elkarrizketa bikain ugari egin zituen Ugaldek, eta prestigioko kazetari egin zen Venezuelan, are Estatu Batuetan bi urteko master bat egin eta unibertsitatean irakasle aritu zenean. Bide oparo horrek etena izan zuen Euskal Herrira itzuli behar zuela erabaki zuenean.

1969an, itzultzean, kazetaritza lanean jarraituko du baina maila askoz apalagoan. *Zeruko Argia* aldizkarian hasi zen idazten. Elkarrizketa gogoangarriak egin zituen, *h*-aren eta euskara batuaren polemika bizi-bizi zela. Garai hartan, liburu aipagarri bat idatzi zuen: *Hablando con los vascos*. Joxe Miel Barandiaran, Koldo Mitxelena, Ramon de la Sota, Pedro Arrupe, Agustin Ibarrola eta Isidoro Fagoari egindako elkarrizketa biziak bildu zituen liburu horretan. Beste liburu baterako utzi zituen Txillida eta Oteizari egindakoak. Azkenean, Txillidarena argitaratu zen, baina Oteizarenak ez du orain artean argirik ikusi.

EAJren agerkari ofiziala eta horrenbestez klandestinoia, *Alderdi*, zuzentzen hasi zen gutxira, eta horretan jardun zuen 1977an *Deia* egunkaria sortu zen arte. *Deia*-n zuzendariorde eta euskarazko erredakzioko arduradun izan zen lehen urtean. Borroka latzak izan zituen euskarak merezi zuen tratua izan zezan egunkari hartan. Sarritan aipatzen zuen Xalbador hil zenean lehen orrian aipatu zedin izan zituen eztabaidak. Azkenean gogaituta, euskara aintzakotzat hartzen ez zela ikusita, utzi egin zuen egunkari jeltzalea.

Euskara hutsean amaitu

Hogeita bi urte eman zituen Ugaldek gaztelaniaz idazten Venezuelan, eta jaioterrira itzultzean euskarari heldu zion, gaztelania tarteko. Baina azken hamarkadetan euskaraz baino ez du idatzi. Berak beti sentitu zuen venezuelarrei venezueleraz idazteko beharra eta, horrenbestez, euskaldunari euskaraz egitekoa. Ez zuen nahi bere herrian erbesteratuta bizi erdarazko prentsan.

Izan ere, kazetaritza eta euskalduntasuna zituen grina Ugaldek. Eta biak ezkontzea posible izango zuen egitasmoan gidari behar zuen halabeharrez. *Euskaldunon Egunkaria*-rekin bete zuen bere betiko ametsa: euskara hutsezko kazeta. *Egunkaria* sortzen, sortu eta gero Administrazio Kontseiluko lehendakari lanak betetzen, eta astero-astero zutabe bat idazten egin zuen lan 1990etik aurrera. Ugalderen zutabegintzak 70-90eko hamarkadetan barrena hogeita hamar urteko bide egin du. Gaiak ugari jorratu ditu: euskara, historia, herria, gazteak eta indarkeria, sindikalismoa, lurraldetasuna, euskal unibertsitatea, demokrazia, eliza, EAJ, ezker abertzalea... Senezko kazetari eta kazetarietan maisu izan da Ugalde.